

Irailaren 8an  
**URTEAN ZEHARREKO 23. IGANDEA**

**Agurra**

Gure Egile eta Salbatzaile dugun Jauna izan bedi zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Asteroko pazkoak bildu gaitu Jaunaren eguneko Eukaristian. Haren izenean bildu gara, Berak deitu gaitu. Bataioko egunetik gu Berarengana erakarri nahian ari da, leialago eta gogo handiagoz jarrai diezaiogun.

**Damu-otoitza**

Utz dezagun alde batera, Jaunari jarraitzea eragozten digun guztia eta har dezagun Bera gure egiazko altxor bakar bezala.

—Jesus Jauna, biziaren Hitzak dituzuna. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, ezaugarri santuen bidez mintzo zarena. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zure testigu egiten gaituzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

**Otoitza**

**Jainko Jauna,**

**Zuk gaituzu salbatzen**

**eta zeure seme-alabatzat hartzen;**

**ikus begi onez hain maite dituzun zeure seme-alabak,**

**eta Kristorengan sinesten dugunoi**

**emaguzu egiazko askatasuna eta betiko bizia.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

### Hitzaren liturgiari oharpena

Kristau bidean aurrera egitean, zein aukera egin argitzen zaigu, eta baita horretarako behar ditugun indarrak adierazi ere. Ez gaitzala honek beldurtu.

### Lehenengo irakurgaia (Jk 9, 13-19)

Jakinduriaren liburutik

Nork ezagutu dezake Jainkoaren asmoa? Edota nork asma, Jainkoak nahi duena? Gizaki hilkorren asmoak hutsak dira, eta aldakorrak gure burubideak. Gorputz ustelkor hau astun baitzaio arimari, eta buztinezko txabola honek gehiago nekarazten du, berez kezkatu den gogo. Lurreko gauzak doi-doi asmatzen ditugu, eta esku artekoak nekez aurkitzen. Nork aztarnatu zerukoak? Nork ezagutu zure asmoa, Zeuk jakinduria eman gabe, goi horretatik zure Espiritu Santua bidali gabe? Horrek zuzenduko ditu lurrekoen bideak, eta ikasiko dute gizakiek, Zuri atsegina zaizuna; jakinduriak salbatuko ditu, Jauna, hasieratik zure gogo egiten dutenak.

### Erantzun-salmoa (Sal 89, 3-4. 5-6. 12-13. 14 eta 17)

Jaun - goi - ko Jau - na, Zu zai - tu - gu gi - zal -  
di - e - tan i - hes - le - ku.



espetxean nagoen bitartean. Hala ere, ez dut zure baimenik gabe ezer egin nahi izan, zure egintza on hori behartuta egina izan ez zedin, gogoz egina baizik.

Beharbada, horretarako aldegin zizun apur batez, gero betiko zeurekin har dezazun; ez, ordea, morroi bezala; morroi bezala baino gehiago, anaia maite bezala: niretzat maite-maitea da, baina zuretzat maiteago, gizon bezala eta kristau bezala. Beraz, ni adiskide banauzu, hartzazu bera neu banintz bezala.

### Aleluia (Sal 118, 135)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia

Erakuts aurpegia argi zeure morroiari,  
irakats zeure arauak niri. R/.

### Ebanjelioa (Lk 14, 25-33)

#### Homiliarako argibideak

##### *Ondasun guztiak uztea*

Gaur egun kristauak ongizatearen kulturetan bizi dituzten zailtasunak ez dira guztiz berriak. Hasieratik, oztopo handia izan zen aberatsen bizimodua kristau fedearantzat. Lukasek, errealismo handiarekin lantzen du diruaren eta ondasunen inguruko gaia (Lk 14, 25-33). Jesusi jarraitzeko orduan dituen arriskuez ohartu da. Antzinako gizartearen oinarria **familia eta jabetza** ziren. Bi elementu horiek bereizezinak ziren. Askatasun pertsonalaren oinarri ziren eta

sakratuak ziren. Antzina, oinordetzan hartzen zen gurasoen erlijioa, ondasunak bezala. Jesusen ebanjelioak zalantzan jarriko ditu gizarte horren oinarriak; gizarte horren dimentsio erlijiosoa erlatibizatzeaz gainera, Jainkoaren eskakizunen eta hari jarraitzeko beharraren aurrean jarriko baititu.

Lehen garai haietan, familiarekin haustea, herentzia galtzea eta gizartean behe mailan jartzea zekarren Jesusen jarraitzaile izateak. Ez da harritzeko ongizateko posizio sozial hura galtzeko beldurrak pertsona askoren bihurtzea blokeatzea. Jesusi jarraitzea **gurutzea** hartzea da, alegia, esklabo bihurtzea ia, ez da batere erakargarria. Ez da harritzekoa, hortaz, lehenengo kristauak behe klaseetakoak izatea, oro har, galtzeko gutxi zutenak. Horixe egiaztatu zuen San Paulok. Ez zegoen aristokrata, aberats edo intelektual askorik. Horregatik, miretsi baino ezin ditugu egin urrats hori egiten ausartu zuren posizio oneko pertsonak.

Lukas izan zen haietako bat. Tradizioak mediku bihurtu zuen. Argi dago kultura handiko pertsona zela, eta ez zela umiliatuta sentitu kide gehienak ezjakinak zituen talde batekin bat egiteagatik eta bere talentua ebanjelioaren eta bere anaia-arreben fedearen zerbitzura jartzeagatik. Bere bizitza eraiki nahi duenaren eta zer baliabide dituen ongi kalkulatzeko duenaren jarrera zentzudun bakarra da. Ez da idealismo xaloa, **kristau errealismoa** baizik, pertsona, gizartea eta mundua ikusteko modua. Gizaki jakintsua baliabideak helburuetara egokitzen saiatzen da. Eraikuntzan edo gerran beharrezkoak diren kalkuluak beharrezkoak dira Kristori jarraitzeko ere.

Jainkoaren Hitzak munduaren ikuspegi bat eskaintzen digu, Jainkoaren eta gizakiaren egia erakusten dizkigu. Jainkoarengandik datorren jakinduria hori gabe, ilusioen biktima da gizakia. Haragi egindako espiritu izateak berehalakoan eta balio materialetan interesatuta arrazoitzeko joera edukitzea dakar (*Jkd* 9,13-18).

Horrela, ahaztu egiten dugu gizakiaren betikotasuna. **Jainkoaren errebelaziora** zabaldua bakarrik uler dezakegu gutako bakoitzaren misterioa eta horrela bakarrik bila ditzakegu gure benetako existentzia gauzatzeko baliabide egokiak. Askotan, erabaki mingarriak hartu beharko ditugu, uko egin beharko diegu sakratuak eta ukiezinak diruditen errealitateei. Horrela ikusiko dugu Jainkoa dela absolutu bakarra gure bizitzan.

Pentsatzeko modu hori aldarrikatzen du Paulok jabearengandik ihesi bere ondoan babestu den esklabo baten alde egiten duenean (*Fil* 9-10. 12-17). Paulok itzuli egiten dio eta barkamena eskatzen dio harentzat, kristau izaera interes juridiko eta material hutsen gainetik dagoela aldarrikatuz. Eukaristiak lagun diezagula Kristori jarraitzeko bidean aurrera egiten, gure bidean aurkitzen ditugun traba guztiei uko eginda.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok: jo dezagun Jaunarengana, gure otoitzak entzun ditzan eskatuz:

- Elizaren alde: Jaunak bakea eta batasuna eman diezazkion eta gaitz guztietatik babesturik Ebanjelioaren zerbitzari leial egin dezan.
- Munduko bakearen alde: gizaki guztien bihotzetan maitasuna eta elkarrenganako ulermena erne daitezen.
- Ezinean, gaixo edota goserik daudenen alde: Jaunaren laguntza eta gure arreta eta esku zabala falta ez dezaten.
- Gaur hemen bilduak gaudenon alde: fedean azkena arte leial iraunez, egun batean zeruko mahaian ere elkar gaitezen.

Jainko ahalguztidun betierekoa, badakizu lurreko gauzak justu ezagutzen ditugula eta zerukoen aztarren bat jakiteko lan egiten dugula; entzun gure otoitzak eta isur gugan Zure Espirituaren jakinduria, Zure Semearen egiazko ikasle bezala eguneroko gure gurutzea eraman eta, Harekin bat eginik, Bere urratsak leial jarrai ditzagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Jauna, zure fededunak  
hitzaren eta sakramentuaren janariz hazten dituzu  
eta biziberritzen:  
emaguzu, zure Seme maitearen dohain handiez baliaturik,  
beti Berarekin bat eginik bizi  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**